

2022

# Prestakuntza- Jardueren

**PROGRAMA**

OTSAILA - EKAINA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

# PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak prestakuntza-proposamen berri hau aurkezten dizue 2022ko lehen seihilekorako. Seihileko honetan, online eta aurrez aurreko prestakuntzari, beste plataforma teknologiko batzuk erabilia prestakuntza egin ahal izateko aukera gehitu nahi izan diogu, gure elkargokideen errealitate ezberdinetara egokitzearren.

Seihileko honetako prestakuntza-eskaintzan honako hauek izango ditugu: hiru ikastaro, bi tailer, online mintegia edo webinar deitzen dena eta liburu oso interesgarri baten aurkezpena, gure lanbideari buruzko gogoeta egiteko.

## 1. IKASTAROAK

Prestakuntza-jarduerak. Seihileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“ESTRESAREN KUDEAKETA, DENBORAREN KUDEAKETA ETA AUTOZAINZTA PROFESIONALA”.**  
**ONDO EGITEA.**  
DAVID MUSTIELES  
40 ordu.  
Plataforma teknologikoan.
- **“SUIZIDIOAREN PREBENTZIOA, HORRI AURRE EGITEA ETA KUDEAKETA EMOZIONALA”.** **GAITASUN SOZIALA.**  
ALMUDENA CASTILLO  
120 ordu.  
Plataforma teknologikoan.
- **“DIAGNOSTIKO SOZIALA”.**  
NURIA FUSTIER  
30 ordu.  
Online ikastaroa (15 ordu online zuzenean + 15 ordu moodle plataforman)

## 2. TAILERRAK

Jarduera hauetan, gaia modu labur eta/edo praktikoagoan gauzatzen da. Arratsalde batean edo bitan egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarri buruzko zertzeladak eman diezazkiguketanak.

Seihileko honetan, tailer bat planifikatu dugu:

- **“ORIENTATS”**  
CRISTINA LÓPES  
6 ordu.  
Presentziala.  
NGLEOren egoitzan.
- **“COACHING ERREMINTA PERTSONEI LAGUNTZEKO - D.A.N.C.E EREDUA”**  
JESÚS MARI ELIZALDE  
5 ordu.  
Presentziala.  
NGLEOren egoitzan.

## 3. ONLINE MINGEGIA / WEBINARRA

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Nafarroa osoko elkargokideek parte hartzea errazteko, honako hau online eran egingo dugu. Seihileko honetarako ondorengo planteatu dugu:

- **“DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO EREDUAREN ALDAKETA WEBINARRA”**  
CRISTINA IRIBARREN GASCA  
“Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntza Emateko Nafarroako Fundazio Publikoaren” Zuzendari kudeatzailea (FPNPA)  
2 ordu.  
Online.

## 4. LIBURUAREN AURKEZPENA

Seihileko honetan, liburu oso interesgarri bat aurkeztuko dugu, gure lanbideari eta har ditzakeen bide ezberdinei buruz hausnarketa egiteko.

- **“LA DIMENSIÓN TERAPÉUTICA DEL TRABAJO SOCIAL”**  
LOLA URRACA  
Presentziala.  
NGLEOren egoitza.

(\*)

**OHAR ARGIGARRIAK**

# IKASTAROAK

## 1

**“Estresaren kudeaketa, denboraren kudeaketa eta autozaintza profesionala”**

**DAVID MUSTIELES**  
**WWW.HACERLOBIEN.NET**

### MOODLE PLATAFORMA

#### 40 ORDU

**DATAK:** 2022ko OTSAILAren 15ean hasiko da. 6 astekoa izango da

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko Otsailak 10.

#### PREZIOA:

50 € Langabezian dauden elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

60 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenentzat).

70 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideentzat.

80 € Gainerako pertsonentzat.



Gizarte Lana zaintza-lanbidea da, eta, hortaz, geure burua zaintzeari erreparatu behar diogu, gure zerbitzuak eta arreta egoera ezin hobean eskaintzeko. Estresa nola kudeatzen dugun, gure denbora nola kudeatzen dugun (gero eta funtzio gehiago bete behar izateagatik) eta gai horien aurrean geure burua nola zaindu behar dugun hausnartu eta ezagutu beharreko gai garrantzitsuak dira.

Prestakuntza honen bitartez, estresa sortzen diguten egoerak

detektatzen laguntzeko erremintak ezagutu ahal izango ditugu, gure denbora kudeatzeko dugun moduari buruzko gogoeta egiten lagunduko diguten tresnak, eta geure burua nola zaindu dezakegun ere ikasiko dugu, besteak hobeto zaindu ahal izateko.

**+Info**

**Izen-ematea**

# IKASTAROAK

## 2

**“Suizidioaren prebentzioa, horri aurre egitea eta kudeaketa emozionala”.**  
**Gaitasun soziala.**

**ALMUDENA CASTILLO**

**PLATAFORMA  
TEKNOLOGIKOA**

**120 ORDU**

**GUTXIENeko TALDEA:**  
15 PARTE-HARTZAILE

**DATAK:**

2022ko martxoaren 21ean  
hasi eta ekainaren 14an  
amaituko da.

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko Martxoak 5.

**PREZIOA:**

80 € Langabezian aurkitzen  
diren elkargokideak eta Gi-  
zarte Langintzako ikasleak.

90 € Nafarroako elkargoki-  
deak (jardunean daudenak).

100 € Gizarte Langintzako  
beste Elkargo batzuetako  
elkargokideak.

125 € Gainerako pertsonak.



Suizidioa da kanpoko heriotza-kausa nagusia, eta trafiko-istripuak ere bikoizten ditu, kopuru benetan kezagarrietara iritsi arte. Hala eta guztiz ere, ez dago gertaera horren aurkako sentsibilizazio- edo prebentzio-kanpainarik. Zergatik? Badira trafiko-istripuak, alkoholemia-arazoak, tabakismoa,... murrizteko prebentzio-kanpainak, baina, suizidioei dagokienez, Administrazioak berak ere beste aldera begiratzen du.

Horrek aurre egin beharreko errealitaterako lehen hurbilketa bat eskaintzen digu. Heriotza berez gai tabua baldin bada, izaera hori areagotzen da zirkunstantzia horietan gertatu bada, eta, azkenik, isiltasunaz, okultismoz eta sekretismoz inguratutako estigma bilakatzen da, hildakoaren senitartekoak heriotzaren errudunak izango balira bezala eta horretaz hitz egitea deserosoa balitz bezala.

Ez dago berez nahikoa den faktorerik pertsona bat bere buruaz beste eginda zergatik hiltzen den azaltzeko; suizida portaera fenomeno konplexua da, eta elkarri lotutako hainbat faktorek eragiten dute: faktore pertsonalak, sozialak, psikologikoak, kulturalak, biologikoak eta ingurumenekoak.

Argi dagoena da suizidio bakoitza eta suizidio-saiakera bakoitza tragedia pertsonal bat dela, pertsona baten bizitzarekin behar baino lehen amaitzen duena, eta familiaren, lagunen eta komunitateen bizitzetan ondorio iraunkorrak ditu.

**+Info**  
**Izen-ematea**

# IKASTAROAK

## 3

### “Diagnostiko soziala”

**NURIA FUSTIER**

**ONLINE**

#### **30 ORDU**

(15 ORDU ONLINE ZUZENEAN ETA 15 ORDU PLATAFORMAREN BIDEZ LAN AUTONOMOA EGINEZ).

#### **PLAZA MUGATUAK**

GUTXIENeko TALDEA:  
12 PARTE-HARTZAILE.

#### **IZEN-EMATEKO EPEA:**

2022ko apirilak 10.

#### **DATAK:**

Hasiera 2020ko APIRILaren 25ean eta bukaera EKAINAK 10ean.

#### **ORDUTEGIA:**

16:30etatik 19:30etara.

#### **DATAK ONLINE**

#### **ZUZENEAN:**

1. SAIOA: apirilak 26 (astear.)
2. SAIOA: maiatzak 3 (astear.)
3. SAIOA: maiatzak 10 (astear.)
4. SAIOA: maiatzak 17 (astear.)
5. SAIOA: maiatzak 24 (astear.)

#### **PREZIOA:**

60 € Langabezian aurkitzen diren elkargokideak eta Gizarte Langintzako ikasleak.

70 € Nafarroako elkargokideak (jardunean daudenak).

80 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideak.

100 € Gizarte Langintzako elkargokide ez diren profesionalentzat.

Jarduera Gizarte Langintzako profesionalentzat da, eta diagnostikoan oinarritzen da, gizarte-lanetik esku hartzeko prozesurako elementu nagusi gisa ulertuta. Funtzioen artean, orientazioa, aholkularitza, akonpainamendua edo



arreta aurkitzen dira, pertsona batek edo pertsona-multzo batek duen egonezin sozialaren eta/edo beharraren egoera jorratzeko oinarriak ezartzen diren neurrian.

Jardueraren bidez, diagnostikoaren prozesua sakondu nahi da, horren barruko alderdi guztiei erreparatuta: errealitatea aztertzen uzten diguten erreferentziatzko eredu teorikoak, diagnostiko bat lortzeko prozesu metodologikoa eta lortu nahi den helburuaren arabera erabil daitezkeen erremintak eta tresnak.

**+Info**

**Izen-ematea**

# TAILERRAK

## 1

### “OrientaTS”

CRISTINA LÓPES

**PRESENTZIALA**

**6 ORDU**

**TOKIA:**

NGLEOren egoitza.

**GUTXIENeko TALDEA:**

10 PARTE-HARTZAILE.

**DATAK:**

MARTXOAK 22, asteartea,  
MARTXOAK 29, asteartea,  
eta APIRILAK 5, asteartea.

**IZEN-EMATEKO EPEA:**

2022ko martxoak 20.

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 19:00etara.

**PREZIOA:**

20 € Gizarte Langintzako  
elkargokideentzat eta  
ikasleentzat.




Karrera amaitu berri dut, eta ez dakit lanbidean hasteko lan bila nola hasi. Lanean ari naiz baina ez gizarte-langile bezala, eta bide horri heldu nahi nioke nire lanbidean aritzeko.

Tailer hau Gizarte Langintzako elkargokide eta/edo ikasle guztientzat da, gizarte-lanean enplegua bilatzeari buruz hausnarketa egin eta enplegua aurkitzeko bidean bilaketa aktibo eraginkorragoa gauzatu nahi dutenentzat.

**+Info**  
**Izen-ematea**

# TAILERRAK

## 2



### “Coaching erreminta pertsoneri laguntzeko - D.A.N.C.E eredu”

JESÚS MARI ELIZALDE

#### PRESENTZIALA

5 ORDU

#### TOKIA:

NGLEOren egoitza.

#### GUTXIENeko TALDEA:

10 PARTE-HARTZAILE.

#### DATAK:

MAIATZak 10, asteartea eta MAIATZak 17, asteartea.

#### IZEN-EMATEKO EPEA:

2022ko maiatzak 4.

#### ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:30etara.

#### PREZIOA:

15 € Gizarte Langintzako elkargokideentzat eta ikasleentzat.

25 € gainerako pertsonentzat.

Erreminta oso baliagarria eta zehatza orientazio-lanerako eta enplegua bilatzeko, dokumentuak izapidetzeko, harrera egiteko, gizarteratzeko, akonpainamendu sozial eta soziolaboralerako, ELZrako, esku-hartze sozialerako, taldean lan egiteko, aldaketa interpertsonal eta intrapertsonalerako,... Tailerrean, coaching eraginkorra ezagutuko dugu pertsonekin esku hartzeko tresna gisa eta lanbide profesionalean eta pertsonalean hobekuntzak lortzen laguntzeko sistemak. Tailerrean, hainbat coaching prozesu egingo ditugu coach moduan D.A.N.C.E. ereduarekin benetako aldaketak eta aldaketa eraginkorrak optimizatzearen.

Tailerra egin eta gero, gai izango zara:

- Coachinga pertsonekin esku hartzeko beste modu batzuetatik bereizteko: irakaskuntza,

terapia, aholkuak ematea, counselling eta bakoitza noiz den egokia.

- Hasi beharreko aldaketa-motak aplikatzeko.
- **Pentsatu, egin eta sentitu** arloan egitekoak detektatzea, coaching egiteko.
- Coaching arloko DANCE eredu abian jartzeko (gauzatzea, aldatzea, nabaritzea, berrestea eta ebaluatzea).
- Jarduerak zehazteko eta aldaketaren beste alderdi batzuekin ez nahasteko.
- Gainerako pertsonengan eta niregan abian jarri beharreko aldaketa-motak ikusteko.
- Ikuskatze-lanak zehatzago kudeatzeko eta aplikaturiko coaching-en aldaketak zehaztasunez ebaluatzeko.
- Erabaki eraginkorrak hartzeko.

#### +Info

#### Izen-ematea

# Online MINTEGIA/ WEBINARRA

## 1

**“Desgaitasuna duten pertsonak artatzeko ereduaren aldaketa. Webinarra”**

**CRISTINA IRIBARREN  
GASCA**

“DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZA EMATEKO NAFARROAKO FUNDAZIO PUBLIKOAREN” ZUZENDARI KUDEATZAILEA (FPNPA).

**ONLINE**

**2 ORDU**

**DATA:**

APIRILAK 6, asteartea

**IZEN-EMATEKO EPEA:**

2022ko apirilak 4.

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 19:00etara.

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzako elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

Ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bitartez, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatu zen, eta pasa den irailaren 3an Lege hori indarrean sartzearekin batera, paradigma-aldaketa bat gertatu da desgaitasuna duten pertsonen arretan.

Nahiz eta egia izan desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruan New Yorkeko Nazio Batuen Konbentzioa gure ordenamendu juridikoan 2008an sartu zela, estatuko legeria eta sistema sozio-sanitario bera oso urrun zeuden desgaitasuna duten pertsonen errealitateari eta beharrei erantzun ahal izateko.

8/2021 Legeak legeria Konbentzio horretara egokitzea eskatzen du, arlo sozial, sanitario eta juridikoan inplikaturako eragile guztiek modu koordinatuan lan egiteko beharra ezartzearekin batera



(“mahai-inguru” moduan, Legean berariaz esaten den bezala), desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa gauzatzeari eragiten dioten jarduera guztiak

1. Haien borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatu dituzten.
2. Pertsonaren egoera zehatzarekiko egokiak eta proportzionalak izan daitezten.
3. Hala badagokie, agintaritzaren aldizkako kontrolen mende egon daitezten.


**+Info**  
**Izen-ematea**



# LIBURUAREN AURKEZPENA

Seihileko honetan, lanbiderako oso interesgarria den liburua aurkeztuko digu Lola Urraca liburu horren egileak.

Gainera, aurkezpenera joandakoen artean **ale bat zozketatuko dugu** liburuaren aurkezpenaren amaieran. Aurkezpenak presentzialak izango dira, betiere egoerak hala baimentzen badu.



## “LA DIMENSIÓN TERAPEÚTICA DEL TRABAJO SOCIAL”

LOLA URRACA

### PRESENTZIALA

**TOKIA:** NGLEOren egoitza.

**DATA:**  
OTSAILAK 10 osteguna.

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko otsailak 8

**ORDUTEGIA:** 18:00etan.

**DOAKOA** Nafarroako Gizarte Langintzako elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

Harremanak sendatzen badu, liburu honetan ikusiko dugu Gizarte Lana nola erreskata daitekeen batzuetan izaten dituen nahaste burokratikoetatik eta nola berreskuratu Gizarte Lan humanista eta erlazionalaren jatorria, pertsona protagonista izan dadin eta harremanak senda dezan. Gizarte Lan Klinikoa egiteko modu bat aurkezten da, laguntza emozional, kognitibo eta erlazionalaren bidez, topaketa eta lotura gainditzeko bidea egiteko laguntza izanik eta teknikak baliabide baliagarriak esku-hartze terapeutikoaren zerbitzura egonda. Prozeduren, hausnarketan eta erreminten inguruko eskuliburua da, eta Gizarte Langintzako profesionalentzat lagungarri izan daiteke eguneroko lanean, aldi berean, nola lan egiten duten eta nola lan egin nahi duten hausnartzeko aukera izan dezaten. Izan ere, topaketa

profesional bakoitza aukera paregabea izan daiteke pertsonarentzat eta laguntza terapeutikoaren ekintza zehatzak edo prozesu sakonak egiteko. Profesional bakoitzaren erantzukizunari egiten zaion kantua da, aukera ematen duten harremanak eraikitzearen ingurukoa, pertsonen minak murriztu eta beren nahiz haien eta ingurunekoen premien, gaitasunen eta baliabideen kontzientzia-maila areagotze aldera, gizartekoa izateak pertsonari mesede egin diezaion eta pertsona horrek, aldi berean, komunitatea bere presentziarekin elika dezan. Azken finean, zaintzarako eta norberaren zaintzarako ikuspegiak, prozesuak eta teknikak batzen dituen gida praktikoa da.

**Izen-ematea**

(\*)

## OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INGURUKO INSKRIPZIOEI, ORDAINKETEI ETA ITZULKETEI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK:

- Emandako inprimakien bitartez **inskripzioak egitea** eskainitako proposamen baterako.
- Pertsona bat erregistratu bada baina azkenean ezin badu izena emandako prestakuntzara joan, **hori hasi aurretik**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du, egingo duen jendearen datu errealak izateko, gainerako pertsonen eragozpenik jarri gabe, prestakuntza hori egiteko kopuru nahikoa baden jakinda.
- **Behin prestakuntza kobratuta, norbaitek baja eman nahi badu** prestakuntza hasi aurretik, ordaindutako ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntza kobratuta**, norbaitek baja ematen badu ikastaroa hasi ondoren, EZ ZAIO EZER ITZULIKO.



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
NAVARRA · NAFARROA

---

[www.trabajosocialnavarra.org](http://www.trabajosocialnavarra.org)

Manuel de Falla, 12 • Entpta. Of. 2 / 31005 Pamplona • Iruñea Nafarroa / Tlf.: 948 240 401